



2024KO BIZKAIKO ESKI ALPINO TXAPELKETA

PROBAREN ARAUDIA

1.- ANTOLATZAILEA

Bizkaiko Neguko Kirolen Federazioa.

2.- TOKIA

Astungo Negu Estazioa. (Las Marmotas estadioa)

3.- DATA, MODALITATEA ETA ORDUTEGIAK

2024ko martxoaren 24a, S. Erraldoia.

Erremonteak irekitzea: 09 .00an

Pista aztertze proba: 09.15etik 09.55era

Pistaren itxiera: 09.45ean

Probaren hasiera: 10.00etan

Forfaitak ematea: Klub Cesvaren aurrean, 08.15etik 09.00etara.

Zenbakiak ematea: 08.15etik 09.00etara, Klub Cesvaren aurrean. 09.15etik aurrera, irteera-tokian.

4.- PARTE HARTZEA

Bizkaiko Federazioaren Federazio Txartela duten kirolariak (2023-2024 denboraldia), kategoria hauetan:

Eskola-kategoria – U12	(2012-2013 urteetan jaiok)
Eskola-kategoria – U10	(2014-2015 urteetan jaiok)
C Helduak	(1965 urtean edo lehenago jaiok)
B Helduak	(1966-1979 urteetan jaiok)
A Helduak	(1980-1994 urteetan jaiok)
Eskola-kategoria – U14	(2010-2011 urteetan jaiok)
Eskola-kategoria – U16	(2008-2009 urteetan jaiok)
Jubenilak	(2004-2007 urteetan jaiok)
Seniorrak	(1995-2003 urteetan jaiok)

5.- IZEN EMATEAK

Klubaren bidez edo banaka Bizkaiko Federazioan, Martín Barua Picaza, 27 – 3.a (Tel.: 94.441.10.63) (info@fvdi.eus), 2024ko martxoaren 20an (asteazkena) 20etara.

Prezioa: lagun bakoitzeko 15 euro diru-sarrera BBKn: ES32 2095 0360 18 3830811741

Forfaita: 45 euroko fidantza barne; diru-sarrera kontu-zenbaki berean

6.- ZENBAKIEN ZOZKETA

Martxoaren 21ean, 12.00etan Federazio honen lokaletan.

7.- IRTETEKO ORDENA

Zenbakiaren zozketaren ondoren, zenbakiak banatuko dira (1 zenbakitik aurrera), eta horrela zehaztuko da irteteko ordena. Epaileak deitzerakoan Irteeran ez dauden kirolariek parte hartzeko aukera galduko dute.

8.- SARI BANAKETA

Proba bukatu eta gero egingo da, eta kategoria bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuei emango zaizkie sariak, bai gizonezkoetan bai emakumezkoetan.

Eskola-kategorian, parte hartzaile guztiek jasoko dute probaren oroigarri bat.

Kirolari bakoitzak bere zenbakiaren ardura izango du, eta zenbakiak jasoko dituen pertsonari itzuli beharko dio, Proba bukatu ondoren. Zenbakia galdu edo kaltetzen duenak 60 euro ordaindu beharko du.

Aipatutako Proba F.V.D.I.-R.F.E.D.I.ren (Negu Kiroletako Euskal Federakuntza-Neguko Kirolen Espainiako Errege Federazioa) Araudiek arautuko dute. Araudi horrek jasotzen ez duen edozein gai Lehiaketako Epaimahaiak erabakiko du.